

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gloria Susaeta Onaindia

*Muxika,
Bizkaia
(1929-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Ibarruriko (gaur egun Muxika) Irazabal auzoko Aurtenetxe baserrian sortu zen lau neba-arrebatako familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Zornotzakoa. Gerraostean, Oka auzoko okindegiko eskolara joan zen Itziar Erzilla irakaslearekin eta ostean Gernikara joan zen maistra berarengana. Eskola utzi eta Ajuria auzoko Uxarte baserrian neskame lanetan aritu zen. Beti aritu izan zen baserriko lanetan eta bere etxekoen zaintzan, sei seme-alaba izan baitzituen.

Zintak

MUX-051

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

MUX-052

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-09
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Okako Itziar maistra

- **Erref:** MUX-051/002
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Oka auzoko "panaderixen" Itziarrek zuen eskolara joan zen. Gerra denboran, Ibarra auzoko Ibarlatxu etxearen ondoko zubipean egon ziren gau batean. Behin abade batek horrela eskatuta etxean izan zuten ezkutatuta. Eskolako maistra Gernikara joan zen beranduago eta Gloriak beregana joatea erabaki zuen, bizikletaz joaten zen.

2. Okako eskolara eta Zugastietako estankora oinez

- **Erref:** MUX-051/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Oka auzoko okindegian jaso zituen eskolak, Etxera bueltan bertatik ekartzen zuen errazionamenduko ogia. Zugastietako estankora tabako-orri bila joaten zen. Zugastietara zein Okara oinez joaten zen.

3. Don Juan medikua zaldiz ibiltzen zen

- **Erref:** MUX-051/007
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Gernikara bizikletaz joaten zen. Umeak jaiotzerakoan ere, Muxikako Astelarra don Juan medikua zaldiz etortzen zen. Berak etxean izan zituen 6 seme-alabak partera barik.

4. Inguruko erromeria guztietara oinez

- **Erref:** MUX-051/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromerietara oinez joaten ziren. Gari sasoian, gari-lanak arrapaladan egiten zituzten erromeriara joan ahal izateko. Ibarruri, Ajuria, Mendata, Ariatza, Zugastietara... joaten ziren. Zugastietan Serafin egoten zen soinua jotzen eta asteburuetan hara joaten ziren. Soltean zein "agarrauan" aritzen ziren.

5. Abarkak ezkutatu eta zapatak jantzi

- **Erref:** MUX-051/012
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:20:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Erromerietarako ez zuten arropa berezirik; izan ere, ez zuten arropa askorik izaten. Abarkekin joaten ziren edonora, baina gero abarkak kendu eta zapatak janzten zituzten; ezkutuan uzten zituzten etxerako bidean berriro janzteko. Abarka-galtzak etxean egiten zituzten.

Transkripzioa

- Ze pentseten dozu? Erropa asko euki bez. Erropak garbittu ta siketu be patxadaz ein barik jantzitze joaten gintzezan gu, erropa askorik be ez gendun eukitten. Oin? ez diñotsut, nik baiño gehidxau makiñe batek eukiko dittu /eukikottu/, baia neuk be zein ipiñi be ez dot jakitten. Baia igual beti batzukin joaten naz.
- Ta oiñetakoak?
- Oiñetakoak. Lehen abarkakin, abarkakin Gorozoikera ta danera abarkakin. Eta bertan elidxien ondoan edo eskolien ondoan abarkak kendu eta zapatak jantzi. Bai. Bai. Ta Adxudxera be mezatara joaten gintzezan, hortidxik behetik gora, Adxudxera be, eta han itturridxe dau elidxie baiño beheratxuau ta hantxe mudetan genduzen oiñetakoak eta hantxe be zapatak jantzi abarkak kendute.
- Eta nunun ezkuteu-edo?
- Bai, ezkuteu. Ezkuteu eitten genduzen han, baia iñok ez bazen ostuten eta ba!
- Eta abarkak narruzkoak edo gomazkoak?
- Gomazkoak. Erosikoak.
- Ein ez?
- Ez. Galtzetin zuritxuekin eta politto joaten gintzezan, baina hantxe kendu.
- Eta galtzak ez zenduezan eitten?
- Baia lehen etxien bai lehen. Lehen bai. Edurne be, aiztie, bizi zen gugaz ezkondu artien eta harek be ezkondu eta gero be eitten bazen. Lau orratzaz ein galtzak eta hala jantzi ta ibili!
- Eta haridxe-eta zelan eitten eban?
- Haridxe ein eitten eben ardi-laniegaz ta ein eitten eben ostantzien be ein eitten eben ta haridxe egoten zan. Haridxe.
- Eta mutillek be kanbidxetan biezan oiñetakoak?
- Mutillek be bardin. Edo botak edo eroaten ez babezan narruzkoak edo holako botak eroaten ez babezan bai, bai. Guk esan doguzen berbak hor hartuko bazen.

6. Bismu, azala zuritzekoa

- **Erref:** MUX-051/013
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:20:22. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:

Soloan beharrean aritzen zirenez, azala belzten zitzairen, baina beraiek azala zuritzekoa ematen zuten, Bismu deiturikoa. Bernatako ileak ere kentzen zituzten. Ilea-apaindegira joateko joerarik ere ez zuten.

Transkripzioa

- Ta pintxeu-edo?
- Orduntxe oin baiño gehidxau. Oin bapez ez dot eitten, baia lehen? Morena gu han soloan-ta ibiltte, baltz-baltz. Ta bakit "Bisnu" izena dekona, holan zuritzekoa halakodxie emoten gendun arpeidxen zurittek.
- Holakorik!
- Ezpanak-eta.
- Ezpanak bai ta ez, ezpanak bai ta ez.
- Ta zuridxe zan politte-edo?
- Bai zuridxe politte orduen, ta oin baltza politte, ta baltzak makiñe bat dauz.
- Ta bernatako ulak-edo kentzen zien?
- Bai, bai. Bernetako ulek eta zera kaminilliegaz edo zereaz.
- Aitteri kendu-edo...
- Holakodxiekin Nerea, oin ez dau holakorik.
- Ta pelukerire-eta joaten ziñien? holan orrazteko-ta edo?
- Keba! ein txori bet-edo ta hala! Lotute ondo.

7. Inguruko auzoetara baino ez ziren joaten

- **Erref:** MUX-051/015
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Normalean mutilek eskatzen zien dantzan egiteko neskari. Ezezagunei ez zieten kasu askorik egiten. Gernikara eta Zornotzara ez ziren joaten, ez zuten horrelako pentsamendurik ere izaten.

8. Umetako jolasak

- **Erref:** MUX-051/017
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:24:42. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Tabaka, fidoka, sokasaltoan... jolasten ziren umetan. Mutilekin ere aritzen ziren. Jolasak eta kankak erdaraz izaten ziren, galarazita baitzegoen euskaraz egitea; hala ere, euren artean euskaraz egiten zuten beti. Bere ahizpa Edurne da, baina askok Nieves esaten zien.

9. "Izábale" vs "Izabale": azentuaz bereizitako auzo-izenak

- **Erref:** MUX-051/019
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:28:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Beraien auzoari ahoz "Izabale" esaten zaio eta elkarriketatzailarenari ere bai, baina azentua da bereizten duena.</p>

Transkripzioa

- "Izabale" be esaten dotsie, baia izetez "Caserío Aurtenetxe", Aurtenetxe baserria.
- Bai, baia barridxa "Izabale".
- Bai barridxa "Izabale".
- Eta geurie?
- "Izabale". azentu diferentekin.

10. Dotrinara Ajuriara

- **Erref:** MUX-051/025
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Gloriaren jaiotetxea lehen Ibarruri zen udaletxez, gaur egun, oster Muxika; hala ere elizaz Ibarruri izaten jarraitzen dute. Dotrina Ajurian auzoan jaso zuen don Bonirekin, gozokiak ematen zizkieten. Bi dotrina mota zeuden: handia eta txikia. Domeketan edo jai egunetan joaten zen.

11. Gerraostean jateko faltarik ez

- **Erref:** MUX-051/028
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:36:21. **Bukatu:** 00:37:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Gerraostean eskolara joan zen. Ez zuten jateko faltarik izan baserrian, baina larregirik ere ez zuten. Ogia etxeko labean egiten zuten; 8 bat ogi asteko.

12. Ogia, taloa eta morokila egiten

- **Erref:** MUX-051/029
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:37:21. **Bukatu:** 00:41:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ogia zelan egiten zuten azaltzen du pasarte honetan. Etxeko mahaiaren bueltan asko batzen ziren. Taloa eta morokila ere jaten zuten. Platerik barik denek jaten zuten leku beretik.

13. Indaba, eguneroko jatordu

- **Erref:** MUX-051/031
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Indaba, urdaiarekin, odolostagaz, txorizoagaz, porruagaz... jaten zuten. Ia egunero jaten zuten hori.

14. Iberlatxuko errotara

- **Erref:** MUX-051/032
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:45:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Irinetan Iberlatxuko errotara joaten ziren. Han eroandako jeneroaren zati bat kentzen zien ordainsari bezala.

15. Argindarra eta ura

- **Erref:** MUX-051/034
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:49:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Galdara zabal batean iturritik ekarritako uretan garbitzen zuten beraien burua. Argia Oka auzoko zentraletik hartzen zuten hasiera batean.

16. Komuna

- **Erref:** MUX-051/036
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:50:54. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Komuneko paperik ez zegoenez, egunkaria erabiltzen zuten. Etxe aurreko txabolatxu batean zuten komuna, harri handi baten gainean; bertako kaka atera behar izan zen garbituta. Dutxa ezkondu ostean jarri zuten. 18 urtegaz izan zen ama.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com